

**ITURGIN LANPOSTUA BITARTEKO FUNTZIONARIO BATEKIN BETETZEKO  
DEIALDIAREN OINARRIAK.****LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea da iturgin lanpostu bat bitarteko funtzionario bidez betetzea, lanpostu hori behin betiko funtzionario batek bete, ala deialdia eragin zuten premiazotasuna eta beharrezkoa desagertu bitartean. Lanpostua **Basauriko Udalerako** da, eta **sarbide libreko** sistema orokor bidez hornituko da, **oposizio** bitartez.

Administrazio Bereziaren Eskalan, Zerbitzu Berezien Azpieskalan, Lanbideetako langileen Klasean sailkatzen da aipatutako lanpostua, eta ondoko ezaugarri hauek ditu: C ordainsari-taldeari dagokion soldata, C2 azpitaldea; 17 lanpostu-mailako osagarria; aparteko ordainsariak; hirurtekoak; eta indarreko legeriarekin, zein Basauriko Udalak hartu dituen edo hartuko dituen akordioekin bat datozen gainontzeko ordainketak. Era berean, lanpostuak 1. hizkuntza-eskakizuna du esleitura, derrigortasun-datarik gabe.

Lanpostuaren **funtzioak**, berriz, Udalaren organigrama funtzionalean une oro zehaztutakoak izango dira. Gaur egun, honako hauek dira:

- Iturgintza tailerraren berezko lanak egitea, erabilera edo zerbitzu publikoko ondasunei edo xede horretarako eragindakoei lotutakoak.
- Zereginak aurrera eramateko esleitutako baliabide materialak eta giza baliabideak kudeatzea.
- Laguntzaileek eta langileek, iturgintza tailerrean egindako lanak kontrolatu eta ebaluatzea.
- Udal eraikinetan eta bide publikoetan iturgintza eta saneamendu lanak egitea.
- Langileak hautatzeko probetan laguntzea.
- Laguntzaileek eta lan-legepeko langileek egindako iturgintza lanen ikuskapena egitea.
- Oro har, nagusiek agindutako eta iturgintzari lotutako lan guztiak.

**BIGARRENA.- Izangaien baldintzak.**

Hautatze prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu, eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen bateko nazionalitatea izatea. Parte hartu ahal izango dute, halaber, Europar Batasuneko estatuetak nazionalitatea dutenen ezkontideek, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; nazionalitatea duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, parte hartu ahal izango dute -ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude-, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.
- 16 urte beteta izatea, eta erretiro-adinera iritsi gabe egotea.

- Lana behar bezala egitea saihesten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea, alde batera utzi gabe 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzkoa.
- Diziplina-espeditentearen bidez Estatuko, Erkidegoko, Tokiko edo Erakundeetako administrazioetatik baztertu gabe egotea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez egotea.
- Herri Administrazioetan lanean ari diren langileen bateraezintasunaren arloko indarreko legeriak aurrez ikusitako ezgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausan sartua ez egotea.
- Eskola-graduata, Lehen Mailako Lanbide Heziketa titulua edo horren parekoa izatea, edo lortzeko aukera izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak, eskabideak aurkezteko epearen amaierarako bete beharko dira, eta mantendu beharko dira lanpostua hartzen den datan.

Hautes-prozesuan onartua izan eta bertan parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek, beren eskabideetan, eskatutako baldintzak betetzen dituztela adieraztea. Hori bai: egiaztatze fasea heltzen denean, hala egin beharko dute.

### **HIRUGARRENA.- Eskabideak.**

Izangaiek eskabidea aurkeztu beharko dute, onartuak izan, eta, hala balitz, dagozkion hautaprotetan parte hartu ahal izateko. Eskabide horretan, dagozkion hauta-prozesuan parte hartu nahi dutela adierazi beharko dute, eta Bigarren Oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela (eskabideak aurkezteko epearen azken egunari lotuta, betiere).

Izangaiek, honako hauek jaso beharko dituzte euren eskabidean:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Oposizio aldiko hautaprotak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz ala gaztelaniaz.
- c) Ezgaitasunen bat dutenek, euren egoeraren berri eman beharko dute eskabidean, eta, hala balitz, adierazi beharko dute hautaprotak egiteko behar dituzten arrazoizko denbora- eta baliabide-egokitzapen eta doikuntzak.

Eskabidearekin batera, berriz, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NAren fotokopia. Atzerritarrek, horren baliokidearen kopia.
- b) Hizkuntza eskakizunaren egiaztageria, aintzat hartua izan dadin Seigarren Oinarrian jasotako merezimendu bezala.

Eskabidea aurkezten dutenek, baimena ematen dute izaera pertsonaleko euren datuak (izen-abizenak eta telefono-zenbakia) beste herri administrazio batzuei lagatzeko, datuok eskatzen badituzte lanposturen bat premiaz betetzeko.

Eskabide horiek Udalbatzako buruari zuzenduko zaizkio, eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia prentsan eta Udalaren webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hamar eguneko epean.

Halaber, eskabideak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4. eta 70. artikuluetan xedatutako moduan aurkez daitezke.

% 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna dutela egiaztatzeko agiria aurkezten duten hautagaiak, ariketak egiteko denbora eta bitartekoak moldatzeko eskatu ahal izango dute, hala behar izanez gero. Xede horrekin, ezgaitasunaren ehunekoa eta ezaugarriak adierazi beharko dituzte.

Hautagaiak eskabideetan adierazi dituzten datuetara lotuta geratuko dira. Datuok aldatzeko, idatzi arrazoitua aurkeztu beharko dute, eskabideak aurkezteko arestian aipatutako epearen barruan. Epe hori igarota, ez da halako eskaerarik onartuko.

Basauriko Udaleko iragarkien oholtzan eta web orrian eskainiko da hautespen-prozesuari eta horren ondoriozko egintzei buruzko informazioa, jakinarazpen eta komunikazio ofizialen xedeetarako.

### **LAUGARRENA.- Izangaiak onartzea.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Udalbatzako lehendakariak ebazpena emango du, eta onetsi egingo du onartuen eta baztertuen zerrenda. Gero, zerrenda hori Udaleko Iragarki Taulan jarriko da, eta bost laneguneko epea emango da bazter utzitakoek erreklamatzeko, zein baztertze hori eragin duten akatsak eta dokumentuak konpontzeko.

Ezin izango da konpondu eskabidea epez kanpo aurkeztu izana; merezimenduak egiaztatzeko agirietan dauden akatsak edo hutsuneak ere, ezin daitezke konpondu.

Erreklamazioak aurkezteko epe hori igarota, Udalbatzako lehendakariak ebazpen berria emango du, non onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko baitu.

Era berean, aipatutako ebazpenean Epaimahai Kalifikatzailearen osaera adieraziko da, eta lehenengo ariketa noiz izango den.

Aipatutako guztia horrela izanda ere, ebazpenaren ondoren edozein unetan (baita probak egiten ari direnean ere), Epaimahaiak hautemango balu edozein hautagairen eskaeran edo dokumentazio osagarrian zehaztasunik eza edo faltsukeria dagoela, eta, hori, baztertzeko arrazoia izango balitz, hori akats konponezintzat jo eta, Epaimahaiak, Alkatetzari proposatuko dio horiek baztertzeko erabakia hartzeko.

### **BOSGARRENA.- Epaimahai Kalifikatzailea.**

**1.- Epaimahaia eratuko da** Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen **60. artikuluan** ezarritakoaren arabera, eta honako hauek osatuta egongo da: epaimahaiburua, idazkaria, eta hiru epaimahaikide. Epaimahaiaren osaketaren berri emango zaie izangai guztiei, onartuen zerrenda jakinarazteko ebazpenean.

**2.-** Dena den, Epaimahai Kalifikatzaileak aholkulari adituen laguntza jaso ahal izango du, espezialitate teknikoetarako. Hala jasota dago Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan.

**3.-** Epaimahai Kalifikatzailearen kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Udalburuari jakinarazi, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikulua jasotako egoeraren bat ematen bada; halaber, hautagaiak epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluan xedatutako arrazoiak bat ematen denean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 29. artikulua jasotakoaren arabera.

**4.-** Epaimahai Kalifikatzailearen kide guztiek hitza eta botoa izango dute.

Epaimahai Kalifikatzaileak, bertaratuen gehiengoaren botoz hartuko ditu erabakiak.

**5.-** Aurrekoez gain, **Epaimahai Kalifikatzailean** egongo dira Epaimahaiaren Idazkaritzarako, Lehendakaritzarako eta dagozkion batzordeetarako izendatutako titularrak eta ordezkioak.

**6.- Epaimahai Kalifikatzaileak** ezingo du eratu, ez jardun, kideen erdia baino gehiago ez badaude, izan titularrak zein ordezkioak.

**7.-** Prozeduraren edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakingo balu izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, Epaimahaiak izangai hori baztertu egingo du. Hori bai: aurretiaz, interesdunari entzunaldia emango dio, eta, egun berean, horren berri emango dio lehiaketaren deialdia egin duen agintaritzari.

## **SEIGARRENA.- Hautatze-prozesua.**

Izangaiek oposizio libre bidezko sistemaz aukeratuko dira.

### **Oposizio-fasea**

#### 1. proba (nahitaezkoa eta baztertzaila):

Oinarri hauei dagokien gai-zerrendako zati komuneko eta zehatzeko edukiei buruzko galderak idatziz erantzutea (I. eta II: Eranskinak), Epaimahaiak ezarritako gehienezko denboran. Galdera horiek, aukerako lau erantzun izango dituzte, eta erantzun okerrak zigortu egingo dira.

Formula honen bidez lortuko da puntuazio zuzena: Puntuazioa izango da ondo dauden galderen kopurua, ken akats kopuruaren herena ( $P = O - A/3$ ). Kalkulu horretan, erantzun gabeko galderak ez dira akats gisa hartuko.

Ariketaren amaierako puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Epaimahaiak azken puntuazioan gutxienez bost (5) puntu lortzeko beharrezko jakintza maila finkatuko du, izangaien nortasunaren berri izan baino lehen.

Behin Epaimahaiak finkatu duenean azken puntuazioan gutxienez bost (5) puntu lortzeko beharrezko jakintza maila hori zein den, puntuazio zuzenak azken puntuazio bihurtuko dira, banaketa proportzionala erabilita. Horrela, bada, hamar (10) puntuko azken puntuazioak, lor daitekeen gehienezko puntuazio zuzenarekin bat egingo du. Eragiketa horiek guztiak, izangaien nortasunaren berri izan gabe egingo dira.

#### 2. proba (nahitaezkoa eta baztertzaila):

Ariketa praktiko bat ala batzuk egitea, bete beharreko lanpostuaren eginbeharrei lotutakoak (II. Eranskina).

Ariketaren amaierako puntuazioa 0-10 bitartekoa izango da, eta, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

### **Euskara ezagutza egiaztatze fasea**

#### **Honako egiaztigiri hauek meritu gisa baloratuko dira:**

1. hizkuntza-eskakizuna: 2 puntu.

Hizkuntza eskakizunei dagokionez, izangaiek egiaztatu beharko dute dagokion hizkuntza eskakizunaren egiaztigiria daukatela, edota, bestela, eskatutako hizkuntza eskakizunaren baliokide diren tituluen jabe direla.

Baliokidetzeari dagokienez, hemen arautzen dira: euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Mailekin parekatzeari buruzko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. Artikuluan; eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeari, eta euskara maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua. Aipatutako egiaztagiria, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

#### **ZAZPIGARRENA.- Prozesuaren emaitza.**

Hautaketa-prozesuaren fase puntuagarrietan lortutako puntuen baturak finkatuko du sailkapenaren hurrenkera. Berdinketa egonez gero, ondorengo irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Oposizio fasean punturik gehien lortu duena.
- b) Oposizio fasearen bigarren ariketan puntu gehien lortu duena.
- c) Oposizio fasearen lehen proban punturik gehien lortu duena.

#### **ZORTZIGARRENA.- Gainditu dutenen zerrenda. Dokumentuak aurkeztea.**

**Hautatze prozesua amaituta, Epaimahaiak** gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, puntuen hurrenkerari jarraituta, eta hautatua izan den pertsona nor izan den adierazita. Zerrenda hori, bestalde, Udaltzako lehendakariari bidaliko dio, eta hautatua izan den pertsona bitarteko funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio; proposamen horrek izaera loteslea du.

Era berean, Epaimahaiak azken saioaren akta bidaliko dio Udaltzako lehendakariari. Akta horretan, eta puntuazio-hurrenkeraren arabera, proba guztiak gainditu arren, plaza lortu ez duten oposiziotik guztiak agertuko dira. Zerrenda hori erabiliko da, batetik, plaza lortu duen hautagaia lanpostuaz jabetuko ez balitz, inolako beste eskubiderik eta aukerarik gabe; eta, bestetik, antzeko lanpostuetarako, hau da, iraunkorrak ez diren langile beharrak bete behar direnean, hiru urtetik beherako aldietan.

Epaimahaiaren erabakiak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat. Hori bai: organo horrek, erabakiok berriro aztertu ahal izango ditu, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko Legean xedatu bezalaxe.

Proposatutako oposiziotik, deialdiaren oinarrietan hautespen-prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintzak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztuko ditu, Udaleko Erregistro Orokorrean, gaindituen zerrenda argitaratzen den datatik, 10 laneguneko epean.

- 1.- Nortasun Agiriaren fotokopia, behar bezala konpultsatua.
- 2.- Kargu publikoetan aritzeko ezgaitua ez dagoela, eta diziplinazko espediente bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertua ez dagoela jasotzen duen zinpeko aitortpena.
- 3.- Herri Administrazioaren zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoirik ez duela jasotzen duen zinpeko aitortpena.
- 4.- Funtzioa ondo betetzea saihesten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez duela adierazten duen mediku-ziurtagiria.

Izangai minusbaliatuek, gainera, dagokion plazaren funtzioak betetzeko gaitasun-agiria aurkeztu beharko dute, dagokion administrazio-organoak emandakoa.

**5.-** Deialdian berariaz eskatutako baldintzei dagozkien egiaztagirak (Eskola-graduatuaren, edo lehen mailako lanbide heziketaren edo horren baliokide den titularen fotokopia konpultsatua).

Ezinbesteko arrazoien kasuan izan ezik, proposatutako oposizioak ez badu bere dokumentazioa aurkezten arestian aipatutako epean, edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, oposiziogile hori ezin izango da izendatua izan, eta jarduera guztiak baliorik gabe geldituko dira, hautespen-prozesuan parte hartzeko eskabidean azaldutako faltsukeriarengatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasu horretan, Udalbatzaren lehendakariak izendapen-proposamena formulatuko du, sailkatuen zerrendan hurrengo tokian dagoenaren alde.

#### **BEDERATZIGARRENA.- *Izendatzea.***

Aipatutako dokumentuak aurkezteko epea amaitutakoan, izangaia bitarteko funtzionario izendatua izango da.

Izendapena pertsonalki jakinaraziko zaio hautatua izan den pertsonari.

Interesduna ez bada karguaz jabetzen adierazitako epe eta baldintzetan, bidezko arrazoirik egon gabe, karguari uko egin diola joko da. Kasu horretan, ordeztua izango da, hautespen-prozeduran lortutako puntuen hurrenkerari jarraituta, eta, aurretiaz, aurreko atalean adierazitako agiriak aurkeztuta.

#### **HAMARGARRENA.- *Lan-harremana amaitzea, errebokatzea eta iraungitzea.***

Bitarteko funtzionarioak kargua utziko du, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 63. artikuluan jasotako arrazoiez gain, bere izendapena eragin zuen arrazoia desagertzen denean.

Izendapena errebokatu egingo da hurrengo zio hauetako batengatik:

- Bitarteko funtzionarioaren plaza, karrerako funtzionario batek betetzen duenean (funtzionario hori, araudi bidez langileak hornitzeko aurreikusitako sistema baten bidez hautatuko da).
- Bat-bateko arrazoiengatik, plaza amortizatzen denean.
- Bitarteko funtzionarioa kontratatzeko arrazoiak desagertu direla jotzen duenean Udalak.

#### **HAMAIKAGARRENA.- *Intzidentziak.***

Epaimahai Kalifikatzaileak baimena du sortutako zalantzak ebazteko. Halaber, lehiaketa behar bezala garatzeko erabakiak har ditzake, oinarri hauetan aurreikusita ez dauden alderdietan.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horien eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardueraren ondorioz sortutako administrazio-egintzen kontra egin dezakete, Herri Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak xedatutako kasuetan, eta bertan jasotako moduan.

Oinarriek aurreikusten ez dituztenetarako, honako hauetara joko da: Estatuko Administrazioetan lanean hasteko araudi orokorra, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Juridikoei buruzkoa;

6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duena, eta haren ondorengo aldaketak; eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

**HAMABIGARRENA.- *Aldi baterako lan-poltsak.***

Hautatze-prozesu honen emaitzekin, lan-poltsa bat eratuko da. Lan-poltsa horrek, hasieran, 3 urteko indarraldia izango du, eta oposizio-faseko ariketak gainditu dituztenek osatuta egongo da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorrira eratutako lan poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuekiko lehentasuna izango dute, nahitaezkoak eta baztertzailak diren proba gehien gainditu dituztenek osatutako zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

**GAI-ZERRENDA****(I. ERANSKINA)  
ZATI OROKORRA.**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak.
2. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Atariko titulua.
3. gaia: Udal antolaketa. Udal-organoen eskumenak eta funtzionamendua.
4. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 8koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: printzipio orokorrak.

**(II. ERANSKINA)  
ZATI ESPEZIFIKOA.**

5. gaia: iturgintza. Kontzeptu orokorrak. Iturgintza-lan nagusiak. Lanabesak.
6. gaia. Instalazioen osagaiak. Hoditeria eta osagarriak. Balbulak eta kontrolerako gailuak. Txorrota sanitarioak. Kontagailuak. Ur-tangak. Erabilitako materialak eta ezaugarriak. Abantailak eta eragozpenak. Pieza bereziak.
7. gaia: hidraulika. Oinarrizko ezagutzak. Emariak eta kontsumoak, abiadura, uraren desplazamendua, eta emariaren, abiaduraren eta sekzioaren arteko harremana. Presioa, presioaren eta altueraren arteko harremana, karga-galerak, ahari-kolpea. Makinak eta erremintak.
8. gaia: ur hornidura: aplikatzeko araudia.
9. gaia: ur hornidura. Urak bideratu eta banatzeko sareen definizioak eta funtzioak. Ponpatze sistemak eta presio taldeak. Biltegiak. Hoditeriak: motak. Loturak. Balbulak, bentosak eta maniobrak egiteko elementuak.
10. gaia: hornidura-, banaketa- eta saneamendu-sareen mantentze-lanak.
11. gaia: ikuskaritzak, eta instalazioak probatzea.
12. gaia: soldatzeak. Motak, eta erabili beharreko materialak eta teknikak.
13. gaia: erakinen barruko instalazioak. Instalazioak diseinatzea eta muntatzea, dimentsionatzea eta etxeko gailuetako gutxieneko emariak.
14. gaia: ur horniketa. Uraren gogortasuna. Uraren hargunea. Presio-murriztaileak. Kontsumo-presioa.
16. gaia: hodiak: hodi motak. Hodietako presioa. Karga-galerak. Hodien kalitatea. Ur hotz eta beroaren instalazioetan erabili beharreko hodiak zehaztea.



17. gaia: ur hotz eta beroaren instalazio on batek bete beharreko baldintzak. Ur-kontsumoak. Aldiberekotasun koefizientea.

18. gaia: komun-ontziak hornitzeko hodian diametroak. Erreteren, zorrotenean eta hodi biltzaileen diametroa.

19. gaia: hustubideak. Euri-uren zorrotenean, berunezko hustubideak. Sifoiak.

19. gaia: ikurren interpretazioari eta planoen neurriari buruzko oinarritzko ezagutzak. Hornikuntza- eta saneamendu-sareen krokis bakunen interpretazioa.

20. gaia: prebentzioaren alorreko arauak. Lantokietan eta lan-eremuetan gorde beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun neurriak, seinaleztatzeari eta lan-ekipoak erabiltzeari dagokionez. Iturginen lan-arrisku espezifikoak; babes-neurri indibidualak eta kolektiboak.